

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

647

152/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren Teknikari Espezialista Profesionala kategorian (Informatikako Teknikaria lanpostu funtzionala), txanda ireki bidez, estatutupeko lotura finkoa lortu duten esleipendunen izendapena (dagokion eranskinean agertzen dira zein diren esleipendunak), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018an eta 2019an iragarritako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren. (2021eko abenduaren 14ko EHAA 248. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 17ko 912/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Teknikari Espezialista Profesionala kategorian (Informatikako Teknikaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaprobak arautuko dituzten oinarri espezifikoak. (2022ko apirilaren 6ko EHAA 69. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 23ko 131/2024 Ebazpenaren bidez, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta txanda irekiko destinoen esleipena argitaratu ziren Teknikari Espezialista Profesionala kategorian (Informatikako Teknikaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoari jarraikiz, Teknikari Espezialista Profesionala kategorian (Informatikako Teknikaria lanpostu funtzionala) izangaien behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusi honetara bideratu ostean, zerrenda hori webgunean argitara dadin; eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak egozten dizkidan eskumenez baliatuz

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAAan argitaratzeko agintzea eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatu direla, txanda ireki bidez, Teknikari Espezialista Profesionala kategorian (Informatikako Teknikaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian hartu beharko da destinoaren jabetza. Horretarako, izangaiak hitzordua eskatu beharko du lehenbizi, eta egintzan dokumentazio hau aurkeztu:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo Euro-

par Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetak nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko aitortpena edo hitzmatea aurkeztu beharko dute, ezkontideaz zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko, eta, hala badagokio, izangaia bere kontura bizi dela edo bere kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztagiria, deialdiko oinarri espezifikotan hala eskatzen denean.

– Diziplina-espediente bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzmatea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzmatea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzearagozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie, lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituela hauta-probei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkion eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, izangaiek lanpostuaz jabetzen badira, egin beharreko eginbideak egin eta hurrengo egunean hasiko dira lanean, esleitu zaien zerbitzu sanitarioetako erakundean.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa ezar dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 23a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2024ko otsailaren 6a, asteartea

ERANSKINA

OSAKIDETZAREN LAN-ESKINTZA PUBLIKOA 2018-2019

DESTINOEN ESLEIPENA

KATEGORIA: INFORMATIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA

TXANDA: TXANDA IREKIA

NAN/AIZ	Izangai	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***0367**	Villarreal Aranda, Ernesto	Santa Marina Ospitalea / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Informatika (Informazio Sistemak) - Informatika (Informazio Sistemak) - Informatika (Informazio Sistemak) / Santa Marina Ospitalea / Goizez - Goizez 08:00-15:00 - Ez espezifikoko gehiago	2
***7422**	Erkoreka Anda, Leire	Bizk. Os. Mentaleko Sarea / Osasun Mentaleko Sarea - Egitura orokorrak / Informatika (Informazio Sistemak) - Informatika (Informazio Sistemak) - Informatika (Informazio Sistemak) / BOMSeko Administrazioa / Goizez - Goizez 08:00-15:00 - Ez espezifikoko gehiago	2
***5633**	Rodriguez Dominguez, Daniel	Emergentziak / Emergentziak - Egitura orokorrak / Informatika (Informazio Sistemak) - Informatika (Informazio Sistemak) - Informatika (Informazio Sistemak) / Bilboko EAEko Administrazioa / Goizez - Goizez 08:00-15:00 - Ez espezifikoko gehiago	2